



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urtarrilaren 14a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten baitu Espainiako Gobernuaren erabakia, 16/2015 Foru Legea errekurritzekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu desgaitasuna duen emakume bati egindako sexu-erasoa, eta bere elkartasuna eta laguntza eskaintzen baitizkie biktimari eta haren familiari. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen baitio enplegu eskaintza publikoa birpentsa dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hitzarmena –azken horretako langileen eta haien senitarteko onuradunen osasun-laguntzarakoa– ez berri-tzeko erabakiari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak herritarren parte-hartzea sustatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, LOMCEren aplikazioaren harira Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren mailetako ebalua-zioak direla-eta Hezkuntza Departamentuak hartuko duen jarrerari buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren mailetako ebaluazioak egiteari dagokionez LOM-CEk ezartzen duen derrigorrezkotasunari buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (7. or.).
- Galdera, jakitekoa zer balorazio egiten duen Nafarroako Gobernuak Eskuin muturreko taldeek edo fun-tzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta errepara-zioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen aurka Konstituzio Auzitegian errekurtsioa aurkez-tu izana dela-eta, eta zein diren haren ondorioak eta aurreikusitako neurriak. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (7. or.).

- Galdera, Osasunbidearen eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hitzarmena ez berritzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Osasun-sisteman itxarote-zerrenda itxiren bat egoteari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Davalor Salud, S.L.ri emandako maileguaren baldintzei, itzultzeko epeari eta interesei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (9. or.).
- Galdera, “Nafarroako Foru Administrazio Publikoko energia-kudeaketarako Plana” eta “Nafarroako 2025 energia-plana” deitutako kontusailei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak Unibertsitate Klinikara kanporatzeari buruzko azterlanaren gainekoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko kideak Nafarroaren Egunean Xabierko Gazteluko basilikan izanen diren ekitaldietara joateari buruzkoa. Galdera erretiratzea (11. or.).
- Galdera, ezgaitasuna artatze aldera Nafarroako Gobernuarekin itundutako zentroen kudeaketari eta egungo hitzarmena langileei aplikatzen zaiela bermatzeko neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (11. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorren 2016rako ordutegi ofiziala (12. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten baitu Espainiako Gobernuaren erabakia, 16/2015 Foru Legea errekurritzekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko urtarrilaren 4an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bipilki arbuia egiten du Espainiako Gobernuak hartutako erabakia, errekurtsioa jartzekoa apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen aurka, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa; izan ere, Espainiako Gobernuak berriro ere Konstituzio Auzitegiarengana jo du, Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako gehiengo politikoa eta sozialaren nahia gailentzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroak arlo honetan dituen eskubideak juridikoki aldezteko eta urrats eraginkorrek emateko, eskuin muturreko taldeek eta funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimendu eta erreparazioa helburu; halaber agertzen du bere borondatea dela Nafarroako Gobernuak konpromiso hori bera har dezan.”

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu desgaitasuna duen emakume bati egindako sexu-eraketa, eta bere elkartasuna eta laguntza eskaintzen baitizkie biktimari eta haren familiari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1.- Nafarroako Parlamentuak zeharo gaitzetsen du desgaitasuna duen emakume bati 2015eko abenduaren 27an ingesatuta zegoen zentroko langile batek egindako sexu-eraketa, eta bere elkartasuna eta laguntza eskaintzen dizkie sexu-eraketa hori pairatu zuen emakumeari eta haren familiari.

2.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, sexu batek bestea menderatzearen adierazgarri

gorena da sexu-indarkeria, bai eta emakumeen integritatearen eta askatasunaren aurkako atentatu handi bat ere.

3.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, onartezina da gisa honetako eraketa gertatzea, eta berretsi egiten du bere borondatea dela errotik desageraraztea indarkeria sexista oro, zeina emakumeen eta gizonen arteko desparekotasunaren eta patriarkatu menderatzaile bat egotearen ondorio baita.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du abian jar ditzan beha-

rezkoak diren tresnak, ziurtatze aldera babespean dituen pertsona guztien segurtasuna eta babesa; bereziki, ahulenenena.

5.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloko legedi indardun guztia bete dezan, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak jarritz, eta behar diren tresna guztiak taxutuz berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko, non gizonak eta emakumeak beren bizitzan alderdi guztiak askatasunez eta berdintasunez bizi ahalko baitituzte, eta ez duten tokirik izaneren gizar-tearen zati batek bestea mendean hartzeko nagusikeriazko jarrerak.

6.- Nafarroako Parlamentuak zorionak ematen dizkio Iruñeko Udaltzaingoari, izan duen jokabide azkar eta eraginkorrarengatik, adierazitako gertakarien estuzko erasotzailea atxilotzea ahalbidetu baitu.

7.- Gure gogoia, lehenik eta behin, abusuaren jomuga izan den emakumearekin, haren familiarekin eta hurbilekoekin dago, bai eta Iruñeko Ospitale Psikiatrikoko langileekin ere.

8.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Nafarroan Desgaitasuna duten Pertsonen Erakunde Ordezkariei Batzordearen nahiz beste kolektibo, elkarte eta erakunde batzuen arbuio-komunikatuarekin, beren arbuiorik erabatekoena erakutsi

baitute dibertsitate funtzionala duen emakume batek iragan abenduaren 27an –igandea– Iruñean pairatutako sexu-abusua dela-eta.

9.- Nafarroako Parlamentuak bat egiten du desgaitasuna duten pertsonen entitateen erreibindikazioekin; izan ere, egia den arren azken urteotan ugartu egin direla emakumeen indarkeriaren aurrean babes, aholku eta informazioa ematera bideratutako programak, programa horiek ez dituzte aintzat hartu dibertsitate funtzionala duten emakumeen berezitasunak, zeinak aintzat hartu beharko bailirateke jardun profesionalean. Gertatzez, esan liteke kontzientziazio sozial handiagoa dagoela indarkeriazko egintza baten ondoriozko desgaitasuna daukaten emakumeen kasuan esku hartu beharri dagokionez, horien egoerak ikusezina izaten jarraitzen baitu.

10.- Nafarroako Parlamentuak botere publiko guztiak premiatzen ditu begira dezaten genero-indarkeria prebenitzeari buruzko programa eta politika publikoek kontuan hartzen dituztela dibertsitate funtzionala daukaten emakumeak, bereziki ziurtatze aldera dibertsitate funtzionala daukaten emakumeek erantzun-sistema eraginkor eta integratu baterako sarbidea dutela.”

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen baitio enplegu eskaintza publikoa birpentsa dezan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio birpentsa dezan enplegu eskaintza publikoa, zeinaren arabera lanpostuen % 70 euskarazko irakasleentzat bakarrik izanen

baita, eta eskatzen du, orobat, gaztelaniazko nahiz ingelesezko eta euskarazko lanpostuen arteko oreka baten arabera eskaintza berri bat egin dezan”.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hitzarmena –azken horretako langileen eta haien senitarteko onuradunen osasun-laguntzarakoa– ez berritzeko erabakiari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hitzarmena –azken horretako langileen eta haien senitarteko onuradunen osasun-laguntzarakoa– ez berritzeko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer dela-eta erabaki du Nafarroako Gobernuak 2016an ez berritzea Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hitzarmena, Nafarroako Unibertsitateko langileen eta haien senitarteko onuradunen osasun-zerbitzurakoa?

Iruñean, 2015eko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Gobernuak herritarren parte-hartzea sustatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak herritarren parte-hartzea sustatzeko hartu dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Asko hitz egin da Nafarroako herritarrei hitza emateaz, halatan haiei gobernu-erabakietan eta, oro har, bizitza publikoan aktiboki parte hartzeko aukera eskaintzeko. Are gehiago: berriki, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du egiazki aktiba dezan Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Legeko IV. titulua, "Herriarren parte-hartzea eta elkarlana" izenekoa.

Ulerturik Nafarroako Parlamentuan gardentasunaren afera funtsezko honen inguruan ezin gehiagoko adostasuna dagoela, beharrezkoa da Administrazioaren eta horren oinarri den biztanleriaren arteko solaserako sarbidea errazten duten neurriak argiro eta erabiltzeko moduan ezartzea, bai eta haien baliatzea sustatzea ere.

Galderaren testua:

Zein neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak herritarren parte-hartzea sustatzeko?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, LOMCEren aplikazioaren harira Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren mailetako ebaluazioak direla-eta Hezkuntza Departamentuak hartuko duen jarrerari buruzkoa.

MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, LOMCEren aplikazioaren harira Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren mailetako ebaluazioak direla-eta Hezkuntza Departamentuak hartuko duen jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Esther Korres Bengoetxea, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari denak, Legebiltzarren Erregelamenduari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

• LOMCEren aplikazioa dela-eta, zein jarrera hartuko du Hezkuntza Departamentuak hirugarren eta seigarren mailetako azterketen aurrean?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

Galdera, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren mailetako ebaluazioak egiteari dagokionez LOMCEk ezartzen duen derrigorrezkotasunari buruzkoa.

MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako galdera, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren mailetako ebaluazioak egiteari dagokionez LOMCEk ezartzen duen derrigorrezkotasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Esther Korres Bengoetxea, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari denak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

• LOMCEk inposatzen dituen hirugarren eta seigarren mailetako azterketei dagokienez, derrigortuta daude ikastetxeak azterketa horiek egitea?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

Galdera, jakitekoa zer balorazio egiten duen Nafarroako Gobernuak Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen aurka Konstituzio Auzitegian errekurtsioa aurkeztu izana dela-eta, eta zein diren haren ondorioak eta aurreikusitako neurriak.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer balorazio egiten duen Nafarroako Gobernuak Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erre-

parazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen aurka Konstituzio Auzitegian errekurtsioa aurkeztu izana dela-eta, eta zein diren haren ondorioak eta aurreikusitako neurriak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Roncesvalles Solana Aranak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Urtea amaitzearekin bat jakin genuen Mariano Rajoyren Gobernuak erabaki zuela Konstituzio Auzitegian errekurtsioa jartzea Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen aurka, uste duelako urratu egiten dituela “beste Konstituzio-manu batzuen artean, babes judizial eragingarrirako eskubidea, errugabetasun presuntziorako eskubidea nahiz legeari eta zuzenbideari erabat men eginez jarduteko Konstituzio-printzipioa”.

Foru Legeak –zeina Izquierda-Ezkerrak bulztatu eta PSN, Bildu, Aralar-NaBai eta Geroa Bai-ren aldeko botoa eta UPN eta PPNren aurkako

botoa izan baitzuen– xede du eskuin muturreko taldeen edo funtzionario publikoen indarkeriazko jardunak eragindako motibazio politikoko biktimak halakotzat hartuak izan daitezzen eta, beraz, “dagozkien errekonozimendurako eta erreparazio integralerako eskubideen onuradun” izan daitezzen, 1950etik honako gertakariak direla-eta, Konstituzioa onestearekin batera 1978an abiatu zen demokraziako eta Zuzenbide Estatuko 37 urteak barne.

Honekin, Nafarroako Parlamentuak onetsitako 17 lege errekurritu ditu Estatuak.

Hori guztia kontuan hartuta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du errekurtsioa jarri izanari eta horren zioei buruz? Zer ondorio izanen bide ditu erabaki horrek? Zer neurri hartuko dituzue sor daitekeen egoerari aurre egiteko?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: M.^a Roncesvalles Solana Arana

Galdera, Osasunbidearen eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hitzarmena ez berritzeari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Osasunbidearen eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hitzarmena ez berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Egin al duzue aurretiazko azterlanik, Osasunbidearen eta Nafarroako Unibertsitatearen arteko hitzarmena ez berritzeak ekarriko lukeen kostu ekonomiko eta sozialari buruz? Izan ere, osasun-sistema publikoan 7.000 erabiltzaile berri artatzea eraginen luke.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Osasun-sisteman itxarote-zerrenda itxiren bat egoteari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Osasun-sisteman itxarote-zerrenda itxiren bat egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun-sisteman egun ba al dago itxarote-zerrenda itxirik?

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Davalor Salud, S.L.ri emandako maileguaren baldintzei, itzultzeko epeari eta interesei buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Davalor Salud, S.L.ri emandako maileguaren baldintzei, itzultzeko epeari eta interesei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer baldintza ditu Davalor Salud, S.L.ri emandako maileguak? Zein da mailegua itzultzeko epea eta zeintzuk dira maileguaren interesak?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, “Nafarroako Foru Administrazio Publikoko energia-kudeaketarako Plana” eta “Nafarroako 2025 energia-plana” deitutako kontusaileri buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, “Nafarroako Foru Administrazio Publikoko energia-kudeaketarako Plana” eta “Nafarroako 2025 energia-plana” deitutako kontusaileri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuo Garapen Ekonomikorako Departamentuari zuzendua, idatziz erantzun dakion.

Zeri buruzkoak dira “Nafarroako Foru Administrazio Publikoko energia-kudeaketarako Plana” deritzon kontu-saila, 500.000 eurokoa, eta “Nafarroako 2025 energia-plana” deritzon kontu-saila, 100.000 eurokoa? Zehaztasunezko erantzuna eskatzen dugu.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak Unibertsitate Klinikara kanporatzeari buruzko azterlanaren gainekoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak Unibertsitate Klinikara kanporatzeari buruzko azterlanaren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari a-txikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzar honetako Erregelamenduan xedatuaren babesean, Nafarroako Gobernuari honako galdera hau aurkezten dio, idatziz erantzun dakion.

Egin al da Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak (medikuntzako probak...) Unibertsitate Klinikara kanporatzeari buruzko azterlana, 2014ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruz Kontuen Ganberak eginitako txostenean gomendatzen den bezala, zerbitzu horien kostu pribatuen eta publikoen arteko konparazioa ezagutzeko?

Iruñean, 2015eko abenduaren 29an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, Nafarroako Gobernuo kideak Nafarroaren Egunean Xabierko Gazteluko basilikan izanen diren ekitaldietara joateari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako Gobernuo kideak Nafarroaren Egunean Xabierko Gazteluko basilikan izanen diren ekitaldietara joa-

teari buruzkoa zen, eta 2015eko azaroaren 20ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, ezgaitasuna artatze aldera Nafarroako Gobernuarekin itundutako zentroen kudeaketari eta egungo hitzarmena langileei aplikatzen zaiela bermatzeko neurriei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera ezgaitasuna artatze aldera Nafarroako Gobernuarekin itundutako zentroen kudeaketari eta egungo hitzarmena

langileei aplikatzen zaiela bermatzeko neurriei buruzkoa zen, eta 2015eko abenduaren 28ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2016rako ordutegi ofiziala.

Kontuen Ganberako lehendakariak, behean ageri den egunean, honako ebazpen hau eman zuen:

“Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2016rako ordutegi ofiziala zehazteko, erakunde honen bulegoetan aurkezten ahal den dokumentazio ofiziala jasotzeari dagokionez, lehendakaritza honek

EBATZI DU:

Lehena. Xedatzea Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2016. urterako ordutegi ofiziala, bere bulegoetan dokumentuak aurkeztekoa, 08:30etik 14:30era bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

Bigarrena. Xedatzea ezen Kontuen Ganberara zuzendutako dokumentazioa erregistratzearen

ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela larunbatetan, igandetan eta Nafarroako Gobernuako Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren abenduaren 23ko 280/2015 Foru Aginduan ezarritako jai egunetan, bai eta uztailearen 6, 8, 11, 12, 13, 14 eta 15ean, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Kontuen Ganberako langile guztiei igortzea eta zera agintzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2015eko abenduaren 30ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas”